


STARTINNOVA

Ander Beltran, Ainara De Jesús, Leire Asua eta Beñat Andonegui

- Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Dakigunez, gure komunitan hiru depositu daude, bat iturrirako beste bat komun-ontzirako eta azkena dutxa edo bainuontzirako. Guri, galdera bat otu zitzagun: zertarako ur garbia erabili komun-ontzian?

Badakizuenez, sistema honek, ur garbi asko xahutzen du eta honek arazo larriak sortu ditzake gure egoera ekonomiko eta baita ingurumenaren arloan. Hemendik abiatuz, gure zerbitzua sortu genuen; ideia, hiru depositu hauek lotzean oinarritzen da, bainuontziko eta iturriko hodiak komun-



ontziko adietara lotzea. Modu honetan, depositu bakar bat egongo litzateke. Horretarako, hodi-sistema berri bat sortu beharko dugu, lurzorua azpian (hiru ur-deposituak lotuta egoteko). Ura lehenengo iturritik eta bainuontzitik irtengo da (ur garbia) eta ondoren ur berdina komun-ontziko deposituan pilatuko da, modu honetan, ura berrerabiltzeko. Proiektu honekin hainbat helburu lortu nahi ditugu, ala-nola; Ingurumena zaintzeko beste metodo bat erabiltzea, baita pertsonen diru-gastuak jaistea.

- Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gaur egun, ingurumena zaintzea gero eta eginkizun garrantzitsuagoa da gure artean eta eman beharreko lehenengo pausua gure etxeetan eman beharko genuke. Gure proiektua honekin lotzea nahi izan dugu, espezifikoki urarekin, modu honetan, hura aurreztuko dugu konturatu gabe. Ura depositu batetik bestera joatean, gainera, etxeko ekonomian lagungarria izango da, batez ere, ekonomikoki txarto dauden familientzat. Proiektu honen bidez haien komuna hobetuko genuke eta emandako erraztasunekin, ordaintzerako orduan, arrazoi gehiago izango lituzke bezeroak guri ordaintzeko prest egoteko.